

# “ENDO”

---

**I**ZEN onekin egin zuen Jose Elizondo-k joan dan urtian, liburuko egoki antolatutako bat, ta gerora izan da Donostiyako Uri batzararak ontzat artu ta erosiya.

Nere lumaz eziñ esan añako apainduriyak dauzkan liburuko au, irakurri det atsegiñ onez eta kutizi aundiz, zillargiñetako erakus apaletan egon oi diran pichi eder ayei, gizaseme ta emakumeak choraturik begira egoten diran ainbesterekin.

Nere jakinduriya izanik dan bezelako urri, eta ezereza, ez deritzot egiñ nezakiela bear beziñ ongi liburuko onek dauzkan edertasunen gai neurketak, zergatik gauz oetarako nigan arki diran gayak chikierdiko poño batean errez kabi litezkienak diran.

¡Zer egoki ta apainkiro agertzen dituen gure mendiyetako artzayen irudiak! Eta, ¡zenbateraño mogida ematen diyen Endo, Urrunda ta Magaleni! Irudi ederrez josiya arki da egintza on au guztiya, ta izkira galtzekorik gabe; oek denak daude elkarri toletura legunian ezarriyak, alkandoren leundariyak apalchoetan salgaitzat alkandorak ipintziten dituzten gisan.

¡Zer nolako burutaraldiya izan zuben Elizondo-k lan eder au asmatu edo sortu zuben egunean! Au guztiya ¿zerk eragiñ arazi diyola uste dezute? Bada ez det uste utsegite aundirik egingo detanik esaten badet, euskaraganako maitasun eta onenganako biyotzetikako griñak.

Askori, eta maiz aski aditzen diyet elkar izketan ari geranian, euskera galtzen dijuala, bañan badakit, chit ongi dakit, onek izkribatzen duben garbitasunakin ez leikiela iñola ere galdu, bada euzko berriyen zakartasunik gabeko izkuntza agertzen du bere izkribu denetan; eta au

egiya dala ikusi ezazuten, askotan aipatu detan liburuchoa arkitzen dan zortzikon dijua ondoren:

«Izarraitz belardiko  
lore likortunak,  
maitarientzat dira  
naitasun kutunak;  
chori chintalariak  
pichigarriidunak,  
ardiyekin nasirik  
artzayen lagunak.»

Ikusten dezute bada zer samurtasunakiñ esana uzten duben zortziko eder onekiñ, nik adierazi nai nukien aunditasunezko egintza, ta ez deritzot au goitalchatzeakin bide charreko lokatzetan sartzen naizenik.

Euskaraganako maitasuna gure artian zenbaterañokua dan gaur, ikusiko baluteke aipatzez azperten ez naizen maisu gaiñ gañeko ayek, aitortuko luteke poz neurri gabeakiñ, ondorengo alperrik utzi gabe aldegin zutela gugandik.

Bañan guk egiten degun guztiyak ¿zer baliyo du gure aita maite ayek egiña utzi ziguten lanarentzat?

Ez; kezkarik gabe aitor nezake utsegiteko bildurra galdurik, Manterola, Arzak, Artola, Iñarra, d'Abbadie, Lopez Alen, Soroa ta oen antzeko beste banaka batzuek izan ez baziran, gure Ama Euskara gaur egongo zala bere semeen lotzagarriztat oztikopetua zezen chuliotan iltzen ditizten zaldi zarren gisan.

Alegiñ osoz jarrai deyogun bada gure izkuntz ederrari, dauzkan itz samur eztitzu berdiñ gabeak agertuaz, zergatik gure ama zar beti gazte danak, chit ugaritasun aundiyan jasuak dauzkan zapi churitan korapilloz lotorik, kucha sendoetan gorderik oi diran urre sarrak bezela.

Azka ditzagun bada korapillodun zapi oriyeke, eta itz berri billa ibilli ez gaitezen len ezagututako gauzak izenpetzeko; arrazoi au bera esana dauka bere izkribu eder, eder batean, nere benetako adiskide Domingo Agirre jaunak, eta etzait iruditzen chanchetako arrazoya; jaun onek ez du nere iritzi bearrik gai oetan ondo arrazoitzen dala jakiniñan egoteko. ¿Ni zer naiz bada onen gayak neurtzeko? ¿Zer ayeke-tatik asiko nitzake onen jakinduriya neurtzen, ez badakit mugak non dauzkan? Eta ontan asteko auzartuko banitz ¿zer esango luteke nere gaurko errenkadak irakutzen dituztenak? Geyenaz ere esango luteke, ta arrazoi aundiz mintzatuko lirake esanaz: gizagajo lukaink'onek bo-

rondatia duben diña baleki, arruan arroz, bere diña toki ez luke arkituko Donostiaren zabalera guztiyan.

Bañan, ¿zer egingo da! iru kanako neurriya besterik ez duben oyalakin, ezin eztaliko degu amazazpi arruako gizona; ez ta ere artachiki alecho batekin, putre baten giralla berdindu.

Bañan, ¿noraño dijuakit nere luma? ¿Zer esaten ari nitzan? Bai, bai: «Endo» deritzon irakurkisunaren berri ematen asi, ta igestu naiz uste gabe nai bañon urrutiyago, non ta nola gabiltzan ondo jakin ga-berik.

¡Toribio Alzaga jaunak barka dezaidala nere kertenkeri ta lotzaga-bekeriya! Onek ondo daki nere gayen berri, ta uste det besterik ez bada ere, nere borondatezko ibilli nayagatik kupiturik, jakingo dubela barkatzen.

Askotan eziñ barkaziyorik emana ere gertatzen da, bañan onekin nerekiko ezaguera bitarteko dala, ukatuko dubenik ez deritzot; oraindaño beintzat barkatu bakarrik ez dit egiñ izandu, baizik toki onak eman izan dizkit EUSKAL-ERRIA-ren ozto tarteko kabiyan, eta nik ziñetan esaten det, zor aundiyak diyozkatela mesede oekgatik; bestela..... aztuko zitzaidan euskaraz, toki chiki bat eman bearrian ez jakiña zera esanaz bidaldu izan baninduben; choriya ere zapuzkeriyan jabe oi da, ta ni ere irichiko nitzan zaputzetan euskaraganako mututurik gelditza.

Aizak Elizondo: i noizpait artzantzan ibilliya izango aiz noski? Beintzat ire «Endo» irakurri detanian, ala iruditurik gelditua nak egi-ya esan bear badet.

¡Au sastre kampillo! ¡Au bai dala ziñetako *Euskalerrriako dramaturgo bascuentzizta!* Bañan etzakela damurik izan, geyago bagaituk izen onekiñ *bikariyo berriyak* batayatuak, eta lagun onak aldamenean, atsegin-garriyak oi dituk noiznairako.

Orañ nayago nitek esango balirakek zer bordako artzai jolasa izan zan eta nondik aditu ukan ondorengo erezi goṣo «Endo-ri» ezarri diyokan au, ta onela diyona:

«Barrutian badauzkat  
amaika larrabei,  
auntz eta anchumeak  
guchienaz ogei;  
nayago det ayekin  
izan beti artzai,  
jaurecheko andera  
izan bañore bai.»

«Jaunak gorde dezala  
nere artaldia,  
belarrak ez du azten  
beste bat obia;  
berrogei ardi dauzkat  
eta bildots pilla,  
ez noa ni iñora.  
zorionen billa.»

Ez daukat geyago lan oni jarraitzeko gairik, bada nere ganbarako uñuak aitu diran beziñ prest, usotegiya chingurriz bete zait, eta «Endoren» apainduriyak agertzeari utzi egin bearko diyot, zergatik šomorro chiki oek pakean uzten ez diraten.

Lan onegatik ¿zer esan lezateke nere irakurtzalle azperturek arkituko diranak? ¿Geyenaz ere zer? Guztiyak dirudiyela, *mendiyen aurgintza*.

Oraingo euskaldun batzubei aditzen diyet askotan, ezeren aurrerakisun gabeko euskaldun lengo gizaldikuak gerala, *Euskal erriakos* deitzen diguten oek; bañan, ¿zer aurrerakisun oberik ekarri digute, lagatza errichin argi, ta suburni zale oyek? Bete betian, ¿lege zar zaleak ez dira? Eta, ala badira ¿zergatik daukate azturik, gure aitonak gu baño zarrago izan zirala, nola ziran Larramendi, Aizkibel, Nobia de Salzedo eta beste geyago? Eta, Mendiburu, ¿orainguetakua al zan?

Oyek guztiyak gu baño zarraguak izanak badira, askotzaz zarragua da, guk bear diña zabalduko ez degun..... Euskara illezkorra.

JUAN IGNACIO URANGA

